

NORBAIT IZATEKO ARGIBIDEEN KITA



Paco Polánen obratik abiatuko gara artearen prozesuei buruzko gogoeta egiteko eta originaltasunaren eta bikaintasunaren kontzeptuak zalantzan jartzeko. Saiatuko gara ideia horiek gure egunerokotasunera estrapolatzen, eta argibideen kit bat sortzen esperimentatuko dugu, gu geu garena izatea lortzeko.

Helburuak:

- Paco Polánen obrara eta sormen-prozesura hurbiltzea.
- Kontzeptu hauei buruz hausnartzea artearen esparruan: originaltasuna, bikaintasuna, balioa eta berregiteko gaitasuna.
- Eskura dugunarekin sormen-esperientziak piztea, eta gauza artistikoei buruz dugun ideia zabaltzea.
- Objektuak asmatzen, diseinatzen eta sortzen ikastea.
- Artea bizitzari hurbiltzea eta alderantziz, modu ludiko baina

Aipamenak:

Paco Polánen obra: <http://laimpoeticadeletcetera.blogspot.com/2013/07/pluriescultur1-paco-polan.html> (obsoleto) , <https://esculturas.pamplona.es/verpagina.asp?idpag=227&idioma=2>

Paco Polánen PechaKucha aurkezpena: https://www.youtube.com/watch?v=tpNdpBVNLnA&ab_channel=CoavnNavarra

Esther Ferrerren partiturak, 197. orrialdetik aurrera: https://www.museoreinasofia.es/sites/default/files/Catalogos/esther_ferrer.pdf

100 obras de arte imposibles (Ezinezko 100 artelan), Dora García: <https://www.arteinformado.com/galeria/dora-garcia/100-obras-de-arte-imposibles-25023>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Paco Polánen «Pluriescultur. Kit de escultura para técnicos, concejales, arquitectos y rotondas» (<http://laimpoeticadeletcetera.blogspot.com/2013/07/pluriescultur1-paco-polan.html>) obra aztertuko dugu eta elkarrizketa bat hasiko dugu galdera hauei erantzunez: Zer da kit bat? Zer motatako kitak ezagutzen ditugu? Baten bat erabili al dugu inoiz? Zer elementu ditu Paco Polánen «Pluriescultur» obrak?

Posible al da artea egitea argibide batzuk jarraituta? Arteak «originala» izan behar du artea izateko?

Galdera horiek beste batzuk planteatzera bultzatuko gaitzake: objektu artistiko baten balioa non dagoen, haren funtzioari eta berregiteko gaitasun teknikoari buruzko auziak, baita originaltasunaren eta bikaintasunaren ideiei buruzkoak.

2. Haien lanetan antzeko estrategiak erabili dituzten artista kontzeptualen erreferentziak bilatuko ditugu, hala nola Yoko Ono, Esther Ferrer, Bruce Nauman edo Dora García. Haien proposamenen bat praktikan jarriko dugu; esaterako, Esther Ferrerren «Huellas, sonidos, espacio» (Arrastoak, soinuak, espazioa) performancea, bere partiturari jarraiki (197-199 or.) https://www.museoreinasofia.es/sites/default/files/Catalogos/esther_ferrer.pdf

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Nor gara? Brainstorming bat egingo dugu, definitzen gaituzten edo gu garen gauza guztiak aipatzeko: pertsonak, ikasleak, neska-mutilak, seme-alabak, anaia-arrebak, nerabeak, irakasleak, kirolariak, marrazkilariak, musikariak, etab. Adjektibo bana gehi diezaiekegu kategoria bakoitza zehatzagoa izan dadin.

2. Argibiderik jaso al dugu garena izateko? Nork eman dizkigu? Nola? Beharrezkoak al dira argibide horiek ala mugatu egin gaituzte? 3-4 pertsonako taldeetan banatuko gara, eta ideia-jasan ateratako ezaugarrietako bat hautatuko du talde bakoitzak.

3. Aukeratu dutena izateko beharrezkoak diren gauzen zerrenda bat egingo du talde bakoitzak: Zer behar duzu ___ izateko? Fase honetan garrantzitsua da ageriko erantzunetatik harago joatea.

4. Erantzun horiekin, ___ IZATEKO KITA sortuko du talde bakoitzak, urrats hauek jarraituz:

- Zer elementu osatuko dute kita? Gidaliburua edukiko du? Krokisak edo marrazkiak agertuko dira? Zehazki sortu beharko ditugun materialak edukiko ditu? Erabakiak batera hartuko ditugu.
- Kita nola imajinatzen dugun islatzeko zirriborroak egingo ditugu. Zer forma emango diogu erakargarria edo misteriotsua izan dadin? Gehien gustatzen zaizkigun zirriborroak aukeratuko ditugu.
- Kitaren elementuen gidaliburua egiten hasiko gara, baita edukia ere.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Talde bakoitzak bere kita aurkeztu, eta beste talde batekin elkartrukatu du, aktibatze eta probatzeko. Fase honetan, sortutako materialak eszenaratu eta praktikan jarriko ditugu. Halaber, guztiok batera prozesua ebaluatzeko eta emaitzari buruzko gogoeta egiteko unea izango da. Zer funtzio betetzen dituzte gidalerroek eta argibideek gure bizitzetan? Haiek aldatzeko ahalmena dugu?